

BILBOKO ARTE  
EDERREN MUSEOA  
MUSEO DE BELLAS  
ARTES DE BILBAO

BILBOKO ARTE EDERREN  
MUSEOA FUNDAZIOA

FUNDACIÓN MUSEO DE BELLAS  
ARTES DE BILBAO

FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

ESTATUTOS DE LA FUNDACIÓN

2018ko ekainaren 19a

19 de junio de 2018



## I. TITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. artikulua — *Izaera, izena eta iraupena*

Estatutu hauek arautuko dute "Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao-Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa" izeneko fundazioa (aurrerantzean, Fundazioa). Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak eratu dute fundazio hori, irabazi asmorik gabeko fundazio kultural pribatu, iraunkor eta iraupen mugagabeko modura.

Fundazioaren izena lehen paragrafoan adierazitakoa izan arren, Fundazioaren izen gisa onartuko da, halaber, bi hizkuntzetako batean soilik emandakoa, dagokion hizkuntzan idatzitako dokumentuetan.

#### 2. artikulua- *Araubide, nortasun eta ahalmen juridikoa*

Fundazioak nortasun juridiko propio eta independentea du, eta jarduteko ahalmen juridiko erabatekoa, honako muga hauekin: fundatzaileek eratze ekitaldian adierazitakoak, estatutu hauetan ezarritakoak eta aplikagarri zaizkion legeko xedapenetan bilduak, Euskadiko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legean bilduak, bereziki.

Horrenbestez, Babesletzari egin beharreko jakinarazpenak egitearen kalterik gabe, Fundazioak ahalmen osoa izango du bere helburuak betetzeko egin beharrekoak egiteko, Kode Zibilarren 38. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorruta. Fundazioak ahalmena izango du:

- Orotariko jarduera ekonomikoak aurrera eramateko, bere helburuak lortzearen edo helburuak lortzeko beharrezko baliabideak bereganatzearen.
- Orotariko ondasunak eta eskubideak eskuratzeko eta besterentzeko, edozein tituluren bidez, eta era guztietako egintza, negozio eta kontratuak egiteko.
- Orotariko ekintzak bideratzeko, bere estatutuekin eta legeekin bat etorruta.

#### 3. artikulua - *Lurralde esparrua eta helbidea*

- Fundazioak Euskadin jardungo du nagusiki.
- Fundazioak Bilboko Arte Ederren Museoa (Museo plaza 2, 48009 Bilbo) izango du helbidea.
- Patronatuak estatutuak aldatzeko hartutako erabakiaren bidez erabaki ahal izango da Fundazioaren helbidea aldatzea. Helbidea aldatuz gero, Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko da. Era berean, Patronatuari aitortzen zaio eratze helburuak betetzeko beharrezko

## TÍTULO I

### DISPOSICIONES GENERALES

#### Artículo 1.- *Naturaleza, denominación y duración*

Mediante los presentes estatutos se regula la Fundación denominada "Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao-Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa" (en lo sucesivo Fundación), constituida por el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Bilbao con carácter de fundación cultural privada sin ánimo de lucro, de carácter permanente y duración indefinida.

Sin perjuicio de la denominación señalada en el párrafo primero precedente, se considerará igualmente como tal, la empleada exclusivamente en una de las dos lenguas en que viene expresada, cuando se haga en un documento redactado en la correspondiente lengua.

#### Artículo 2.- *Régimen jurídico, personalidad y capacidad jurídica*

La Fundación tiene personalidad jurídica propia e independiente y plena capacidad jurídica y de obrar, sin otras limitaciones que las establecidas en la manifestación de voluntad de las instituciones fundadoras en el acto fundacional, en los presentes estatutos y en las disposiciones legales que le sean de aplicación, en particular, la Ley 9/2016, de 2 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

En consecuencia, y sin perjuicio de las pertinentes comunicaciones al Protectorado, la Fundación tendrá plena capacidad de obrar en el cumplimiento de sus fines, conforme a lo previsto en el artículo 38 del Código Civil. La Fundación podrá:

- Desarrollar actividades económicas, de todo tipo, para realizar sus fines o allegar recursos con ese objeto.
- Adquirir y enajenar toda clase de bienes y derechos, por cualquier título, y celebrar todo tipo de actos, negocios y contratos.
- Ejercitar toda clase de acciones, conforme a sus estatutos y a las leyes.

#### Artículo 3.- *Ambito territorial y domicilio*

- La Fundación desarrollará sus actividades principalmente en el País Vasco.
- La Fundación tendrá su domicilio en el Museo de Bellas Artes de Bilbao, Museo Plaza, número 2, 48009 Bilbao.
- Mediante acuerdo de modificación estatutaria adoptado por el Patronato de la Fundación, podrá determinarse el traslado de domicilio, lo cual deberá ser inscrito en el Registro de Fundaciones. Asimismo, se faculta al Patronato para la determinación de las sedes de los

establezimenduen, ordezkaritzen edo bulegoen egoitzak zehazteko ahala.

#### **4. artikulua — Eratze xedeak**

1. Fundazioaren interes orokorreko helburuak dira Bilboko Arte Ederren Museoa zuzentzea, mantentzea, kontserbatzea eta sustatzea; Bilboko Arte Ederren Museoak antzinako artea, arte modernoa eta arte garaikidea bildu, kontserbatu eta erakutsiko ditu, izaera unibertsalaren eta diziplina aniztasunaren irizpideak aintzat hartuta, gizartearen arte hezkuntzarako tresna izateko xedez.
2. Horretarako, helburu hauek finkatu dira:
  - a. Bilboko Arte Ederren Museoaren bilduma kontserbatzea, aztertzea eta erakustea.
  - b. Kalitatezko eta intereseko elementu berriak eskuratuz bilduma etengabe aberasten laguntzea.
  - c. Nazioartean nabarmendutako antzinako arteko, arte modernoko eta arte garaikideko erakusketa programa bat antolatzea, arreta berezia jarrita euskal artearen adierazpenetan.
  - d. Bilboren, Bizkaiairen eta Euskadiren irudia proiektatzen laguntzea.
  - e. Kultura adierazpenak sustatzeko bestelako jarduerak osagarriak egitea, hala nola, hitzaldiak antolatzea, liburu, katalogo eta bestelako argitalpenak plazaratzea, beka eta laguntzak ematea, eta, oro har, Fundazioaren helburuekin bateragarri diren gisa horretako jarduerak egitea.
  - f. Euskal Autonomia Erkidegoan museoek kudeaketan profesional kualifikatuak prestatzen laguntzea.
  - g. Aurrekoei loturik egoki irizten zaion beste edozein.

#### **5. artikulua.— Helburuak eta onuradunak**

Fundazioaren helburuak interes orokorraren zerbitzura daude, eta haren jardunak mesedetutako edozein pertsona natural nahiz juridiko izan daiteke haren onuradun, inolako diskriminaziorik gabe.

Zerbitzuak ematearen truke jaso beharreko zenbatekoak eta funts artistikoetara sartzeko arauak ezartzeko, kontuan hartuko dira orokortasunaren eta inolako onuradunenganako diskriminaziorik ezaren printzipioak. Inork ezingo du Fundazioaren jardueren gozameneko pribilegiozko eskubiderik aldarrikatu.

#### **6. artikulua. — Jarduteko eta funtzionatzeko printzipioak**

Fundazioak honako printzipio hauen arabera jardungo du:

establecimientos, delegaciones u oficinas, que, según los casos, se fijen en función de las necesidades derivadas del cumplimiento de los fines fundacionales.

#### **Artículo 4.- Fines fundacionales y objetivos**

1. La Fundación tiene como fines de interés general la dirección, mantenimiento, conservación y promoción del Museo de Bellas Artes de Bilbao, que reunirá, conservará y exhibirá, con carácter universal y multidisciplinar, el arte antiguo, moderno y contemporáneo, con el fin de servir de instrumento de educación artística de la sociedad.
2. Para ello se establecen los siguientes objetivos:
  - a. Conservar, estudiar y exhibir la colección del Museo de Bellas Artes de Bilbao.
  - b. Promover su constante enriquecimiento con nuevos elementos de calidad y de interés.
  - c. Organizar un programa de exposiciones de arte antiguo, moderno y contemporáneo destacado a nivel internacional y con una particular dedicación a las manifestaciones del arte vasco.
  - d. Contribuir a la proyección de la imagen de Bilbao, Bizkaia y el País Vasco.
  - e. Realizar otras actividades complementarias que tengan como finalidad la promoción o realización de manifestaciones culturales, conferencias, ediciones de libros, catálogos y otras publicaciones, concesión de becas y ayudas y, en general, cualesquiera otras actividades similares, siempre que sean compatibles con los fines fundacionales.
  - f. Facilitar la formación de profesionales cualificados/as en la gestión de museos dentro de la Comunidad Autónoma Vasca.
  - g. Cuantos otros vinculados a los anteriores se consideren convenientes.

#### **Artículo 5.- Finalidad y beneficiarias**

La finalidad de la Fundación sirve a un interés general, pudiendo ser beneficiarias de la misma cualesquiera personas naturales o jurídicas que resulten favorecidas por sus actividades, sin discriminación alguna.

La percepción de cantidades por la prestación de cualquier servicio o la determinación de normas de acceso a los fondos artísticos se establecerán conforme a los principios de generalidad y no discriminación a cualquier potencial beneficiario. Nadie podrá invocar derecho privilegiado para el disfrute de las actividades fundacionales.

#### **Artículo 6.- Principios de actuación y funcionamiento**

La Fundación se guiará en su actuación por los siguientes

**BILBOKO ARTE  
EDERREN MUSEOA  
MUSEO DE BELLAS  
ARTES DE BILBAO**

- a. Publizitatea eta gardentasuna; horretarako, bere helburu eta jardueren buruzko informazio aski emango du, haien berri izan dezaten herritarrek oro har eta Fundazioaren balizko onuradunek.
- b. Inpartzialtasuna eta diskriminaziorik eza onuradunak nahiz jarduerak eta prestazioak zehazteko garaian.
- c. Jarduteko jarraibide jakin batzuk sustatzea, jokabide kodeak eta funtzionamendu egokirako kodeak sortuz.
- d. Patronatua osatzen duten kideen zerbitzu izpiritua sustatzea eta Fundazioaren interesak lehenestea norberaren interesen edo interes partikularren gainetik.
- e. Lankidetzaren leial eta iraunkorra izatea Euskadiko Fundazioen Babesletoarekin.
- f. Fundazioaren ondarea eta errentak benetan Fundazioaren helburuetarako erabil daitezela defendatzea eta babestea, estatutu hauetan eta indarrean den legegian aurreikusitakoarekin bat etorriz.
- g. Genero berdintasuna.

## II. TITULUA

### FUNDAZIOAREN ORGANOAK

#### 7. artikulua.- *Fundazioaren organoak*

Organo hauek ditu Fundazioak:

- a. Patronatua
- b. Batzorde Betearazlea
- c. Aholkularitza Batzorde Artistikoa
- d. Patronatuak egoki irizita sortutako guztiak

#### 1. ATALA

#### 8. artikulua. - *Patronatua*

1. Patronatua da Fundazioaren gobernu eta ordezkaritza organo gorena, eta bere esku izango ditu Fundazioaren eratzeko xedekak gauzatzeko beharrezko ahal guztiak.
2. Patronatuari dagokio, bereziki:
  - a. Eratzeko xedekak betetzen direla begiratzea.
  - b. Fundazioaren goi ikuskaritza, zaintza eta kontrola.
  - c. Ekitaldi bakoitzeko jardueraren plana eta urteko kontuak onartzea.
  - d. Fundazioaren helburua aldatzea eta, Fundazioak halakorik balu, haren establezimendu, ordezkaritza eta

principios:

- a. Publicidad y transparencia, dando información suficiente de sus fines y actividades para que sean conocidos por la población en general y sus eventuales personas beneficiarias.
- b. Imparcialidad y no discriminación en la determinación de las personas beneficiarias, así como de sus actividades y prestaciones.
- c. Promoción de directrices de actuación, mediante la creación de códigos de conducta y buenas prácticas de funcionamiento.
- d. Incentivación del espíritu de servicio de las personas que constituyen el Patronato, así como de la priorización de los intereses de la Fundación frente a los propios o particulares.
- e. Colaboración leal y permanente con el Protectorado de Fundaciones del País Vasco.
- f. Defensa y protección del efectivo cumplimiento de la obligación de destinar el patrimonio y rentas de la Fundación a los fines fundacionales, de acuerdo con lo previsto en estos estatutos y en la normativa en vigor.
- g. Igualdad de género.

## TÍTULO II

### ÓRGANOS DE LA FUNDACIÓN

#### Artículo 7.- *Órganos de la Fundación*

Son órganos de la Fundación:

- a. El Patronato.
- b. El Comité Ejecutivo.
- c. El Comité Asesor Artístico.
- d. Los demás que el Patronato estime oportuno crear.

#### SECCIÓN 1ª

#### Artículo 8.- *El Patronato*

1. El Patronato es el órgano supremo de gobierno y representación de la Fundación, y ejercerá todas aquellas facultades que sean necesarias para la realización de los fines fundacionales.
2. En particular, corresponde al Patronato:
  - a. Velar por el cumplimiento de los fines fundacionales.
  - b. Ejercer la alta inspección, vigilancia y control de la Fundación.
  - c. Aprobar el plan de actuación y las cuentas anuales correspondientes a cada ejercicio.
  - d. Modificar el domicilio de la Fundación y determinar las sedes de sus establecimientos, delegaciones, si los

abarren egoitzak zehaztea.

- e. Fundazioaren estatutuak aldatzea, hala behar denean, eratze xedeekin bat etorrita betiere.
  - f. Fundazioaren bat-egite, bereizte eta eraldaketari buruzko erabakiak hartzea.
  - g. Fundazioa azkentzeko erabakia hartzea eta hura likidatzeko programa zehaztea.
  - h. Fundazioaren zuzendaria izendatzea eta kargutik kentzea.
  - i. Herentziak, lagapenak edo dohaintzak –artelaneak, bereziki– onartzea edo haiei uko egitea, baldin eta Fundazioarentzat egokia dela irizten badiote, eta Babesletzari horien berri ematea, hala dagokionean.
3. Patronatuak bere kide bati edo gehiagori eskuordetu ahal izango dizkio bere ahalak. Edonola ere, inola ere ezingo dira eskuordetu hauei buruzko erabakiak:
- a. Urteko kontuak onartzea.
  - b. Jarduera plana onartzea.
  - c. Estatutuak aldatzea.
  - d. Fundazioaren bat-egitea, bereiztea, eraldaketa, azkentzea eta likidazioa.
  - e. Bestelako pertsona juridiko bat eratzeko egintzak, egintza horiek ez badaude xedeei zuzenki lotuak.
  - f. Beste pertsona juridiko batzuetan parte hartzeko edo haien partaidetzak saltzeko egintzak, baldin eta haien zenbatekoa Fundazioaren aktiboaren %20tik gorakoa bada.
  - g. Ondasunak edo eskubideak xedatzeko edozein egintza, baldin eta haien zenbatekoa Fundazioaren aktiboaren %20tik gorakoa bada.
  - h. Zuzkidura handitzea edo txikitzea.
  - i. Aktibo eta pasibo guztien edo horien parte baten bat-egitea, bereiztea edo lagatze orokorra.
  - j. Sozietateak edo beste pertsona juridiko batzuk azkentzeko egintzak.
  - k. Patronatuko kideak autokontratzea, salbu eta jokabide hori errepikatua bada eta Babesletzak era horretako kasuetarako baimena eman izan badu aldez aurretik.
  - l. Erantzukizunpeko adierazpenak onartzea eta formalizatzea.
4. Era berean, Patronatuak eskumena izango du ahalorde orokorrak nahiz bereziak emateko edo ezeztatzeko.

#### 9. artikulua.- Patronatukideak

- 1. Pertsona fisikoak nahiz juridikoak izan daitezke Patronatuko kide. Pertsona fisikoek jarduteko ahal guztien jabe izan behar dute, eta ezin dute egon kargu publikoak

hubiere.

- e. Modificar los estatutos de la Fundación, cuando fuera preciso, y respetando en todo caso el fin fundacional.
  - f. Acordar la fusión, escisión y transformación de la Fundación.
  - g. Acordar la extinción de la Fundación y el programa de liquidación.
  - h. Nombrar y cesar al director o directora de la Fundación.
  - i. Aceptar o repudiar herencias, legados o donaciones, en particular de obras de arte, siempre que lo consideren conveniente para la Fundación, poniéndolo en conocimiento del Protectorado cuando resulte preceptivo.
3. El Patronato podrá delegar sus facultades en uno o más de sus integrantes. No podrán delegarse, en ningún caso, la adopción de los acuerdos relativos a:
- a. La aprobación de las cuentas anuales.
  - b. La aprobación del plan de actuación.
  - c. La modificación de los estatutos.
  - d. La fusión, escisión, transformación, extinción y liquidación de la Fundación.
  - e. Los actos de constitución de otra persona jurídica, salvo que dichos actos estén directamente vinculados a los fines.
  - f. Los actos de participación o venta de participaciones en otras personas jurídicas si su importe es superior al 20% del activo de la Fundación.
  - g. Cualquier acto de disposición sobre bienes o derechos que superen el 20% del activo de la Fundación.
  - h. El aumento o la disminución de la dotación.
  - i. La fusión, escisión o cesión global de todos o parte de los activos y pasivos.
  - j. Los actos de extinción de sociedades u otras personas jurídicas.
  - k. La autocontratación de las personas que integran el Patronato, salvo que dicha actuación sea recurrente y se haya autorizado por el Protectorado anteriormente para supuestos idénticos.
  - l. La adopción y formalización de las declaraciones responsables.
4. Asimismo, el Patronato podrá otorgar o revocar poderes generales y especiales.

#### Artículo 9.- Patronos o patronas

- 1. Podrán ser miembros del Patronato las personas físicas o jurídicas. Las personas físicas deberán tener plena capacidad de obrar y no estar inhabilitadas para el

betetzeko ezgaituta. Pertsona juridikoei dagokienez, pertsona fisiko batek ordezkatu behar ditu Patronatuan.

2. Patronatukidearen kargua pertsona fisiko bati dagokionean, pertsona horrek bete beharko du kargua, pertsonalki, eta ezingo du beste inork ordezkatu. Edonola ere, patronatukidearen kargua kargu publiko nahiz pribatua duen norbaiti esleituz gero, patronatukideak beste pertsona bat izendatu ahal izango du Patronatuan bere izenean jardun dezan.
3. Patronatukideek organo horretako beste edozein kide izendatu ahal izango dute bileretan beren ordezkari modura parte har dezan; bilerak bakoitzerako ordezkatzearen berri idatziz eman beharko zaio presidenteari.
4. Patronatukideek doan jardungo dute beren karguan, baina horrek ez du eragotziko beren eginkizunak betetzetik eratorritako gastuak kobratzea, baldin eta behar bezala justifikatzen badituzte.
5. Patronatuak erabaki dezake ordainsari bat ematea Fundazioan beren eginkizunei atxikitakoez bestelako zerbitzu batzuk ematen dituzten patronatukideei, baldin eta fundatzaileek berariaz debekatzen ez badute. Erabaki hori Babesletzak onetsi beharko du, hiru hilabeteko epean.

#### 10. artikulua.- Osaera

1. Patronatuko osoko kideak izango dira, erakunde fundatzaileen ordezkari gisa:
  - Eusko Jaurlaritzako Kulturako sailburua.
  - Bizkaiko Diputatu Nagusia.
  - Bilboko alkatea.
2. Horrez gainera, Patronatuak beste patronatukide batzuk izendatzea erabaki ahal izango du, estatutu hauetako 15.2. artikuluan adierazitako aldeko botoen babesarekin; hain zuzen ere, Fundazioari ekarpen ekonomiko, ondareko edo zientifiko esanguratsuak egiten dizkieten pertsona fisikoak edo juridikoak izendatu ahal izango ditu patronatukide, goian adierazitako baldintza beteta. Patronatukide horiek bost urtez egongo dira karguan, gehienez ere, baina, epe hori amaituta, berriro aukeratu ahal izango dira iraupen bereko kargualdietarako, inolako mugarik gabe.
3. Patronatukideek beren kargua utzi beharko dute Legean horretarako aurreikusitako kasuetan, eta, horrez gainera, fundatzaileen ordezkari ez diren patronatukideak noiznahi kendu ahal izango ditu beren kargutik Patronatuak, estatutu hauetako 15.2. artikuluan adierazitako aldeko botoen babesaz.
4. Osoko patronatukideak ezingo dira Patronatutik kanporatu; era berean, ezingo dira ordezkatu baldin eta delako osoko kideak ordezkatzeko duen erakunde fundatzaileak berak aldez aurretik berariaz hala erabakitzen ez badu.

ejercicio de un cargo público. Las personas jurídicas deberán hacerse representar en el Patronato por una persona física.

2. Cuando el cargo del patrono o patrona recaiga en una persona física deberá ejercerse personalmente y no podrá ser delegado. No obstante, cuando el mismo sea atribuido a quien sea titular de un cargo público o privado, podrá esta designar a una persona para que lo ejerza en su nombre.
3. Los miembros del Patronato podrán conferir a cualquiera de los restantes la representación para actuar en las reuniones del mismo, que se efectuará mediante comunicación escrita dirigida a la presidenta o presidente y con carácter específico para cada reunión.
4. Los miembros del Patronato ejercerán su cargo de forma gratuita, sin perjuicio del derecho a ser reembolsados de los gastos debidamente justificados que el desempeño de sus funciones les ocasione.
5. El Patronato podrá establecer una retribución para los patronos o patronas que presten en la Fundación servicios distintos de los correspondientes a sus funciones como tales, salvo prohibición expresa de las personas fundadoras. Dicho acuerdo deberá ser autorizado por el Protectorado en el plazo de tres meses.

#### Artículo 10.- Composición

1. El Patronato estará integrado, como miembros natos en representación de las instituciones fundadoras, por:
  - Consejero o consejera de Cultura del Gobierno Vasco.
  - Diputado o diputada General de Bizkaia.
  - Alcalde o alcaldesa de Bilbao.
2. Además, el Patronato podrá acordar, con el voto favorable que se exige en el artículo 15.2 de los presentes estatutos, la designación como patronas o patronos de personas físicas o jurídicas que realicen contribuciones económicas, patrimoniales o científicas significativas a la Fundación, por un periodo máximo de cinco años, sin bien podrán ser reelegidas por periodos de tiempo iguales, sin límite alguno.
3. Los patronos o patronas cesarán en sus cargos en los casos previstos en la Ley y, además, los patronos o patronas que no sean representantes de los fundadores podrán ser cesados en sus cargos cuando así lo acordara el Patronato con el voto favorable previsto en el artículo 15.2 de los presentes estatutos.
4. Los patronos natos no podrán ser suspendidos en el Patronato. Asimismo, solo podrán ser sustituidos cuando medie acuerdo previo y expreso de la propia institución fundadora representada. La sustitución de los patronos o

Ordezkaritzaz edo izendapenez erakunde fundatzaileei dagozkien patronatukideak ordezkatzeko, delako patronatukidearen erakundean horretarako eskumena duen organoak egin behar du ordezkapena.

5. Gainerako patronatukideek Fundazioaren interesak larriki urratuz gero soilik galdu ahal izango dute patronatukide izaera, ebazpen judiziala dela medio, haien kontrako erantzukizun ekintza bideratzen denean beren kargua Legeak ezarritako arduraz ez betetzeagatik.
6. Patronatuak patronatukideen izendapenaren edo kargugabetzearen berri eman beharko dio Euskadiko Fundazioaren Erregistroari, erabaki horiek hartzen direnetik edo patronatukideek kargua uzten dutenetik hiru hilabeteko epean.

#### **11. artikulua.- Patronatuko presidentetza eta presidenteordetza**

1. Fundazioaren presidente kargua erakunde fundatzaileen ordezkari diren osoko hiru patronatukideek beteko dute, txandaka; hain zuzen ere, urte natural bana egingo dute kargu horretan.

Txandan dagokien urteko lehen egunean hartu eta urte horretako azken egunean utziko dute kargua, modu automatikoan eta horretarako berariazko erabakirik hartzeko beharrik gabe.

Fundazioaren presidentea Patronatuaren presidente ere izango da, eta, hala, hura izango da gobernu organo horren ordezkari gorena; haren egitekoak izango dira, halaber, patronatukide gisa dagozkion ahalez gainera, Fundazioa ordezkatzeko Patronatuaren eta Fundazioaren beste organo batzuen erabakietatik eratorritako egintza eta kontratuetan, baita aurkezten diren auzi, espediente, gai administratibo, gobernuko gai, gai judizial eta estrajudizialetan ere. Ordezkaritza hori betetzeko, auzietarako ahal orokorrak eman ahal izango dizkie prokuradore nahiz abokatuei.

Presidenteari dagokio, halaber, Patronatuaren bileretarako deia egitea, estatutu hauetan eta legeetan ezarritakoari jarraituz, Patronatuaren deliberazioak gidatzea eta haren erabakiak betetzea. Presidentearen kargua hutsik badago, presidentea ez badago edo gaixo badago, presidenteordeak edo, bestela, gobernu organoko adin handieneko kideak jardungo du haren ordez.

2. Era berean, presidenteordearen kargua ere txandaka aldatuz joango da erakunde fundatzaileen ordezkarien artean; hurrengo ekitaldian Patronatuko presidente kargua betetzea dagokion kideak beteko du kargu hori.

patronas que, en representación o por designación, correspondan a las instituciones fundadoras, deberá efectuarse por el órgano competente de aquella a la que corresponda.

5. El resto de patronas o patronos solo podrán ser suspendidas en tal condición por violación grave de los intereses de la Fundación, determinados por resolución judicial cuando se entable contra las mismas la acción de responsabilidad por no desempeñar el cargo con la diligencia prevista en la Ley.
6. El Patronato deberá comunicar al Registro de Fundaciones del País Vasco el nombramiento y cese de sus patronas o patronos en el plazo de tres meses contados desde la adopción de dichos acuerdos o desde la fecha de la renuncia.

#### **Artículo 11.- Presidencia y Vicepresidencia del Patronato**

1. El cargo de presidenta o presidente de la Fundación recaerá de forma rotatoria entre los tres patronos natos representantes de las instituciones fundadoras, con una duración equivalente al año natural.

El ejercicio del cargo se iniciará y finalizará, respectivamente, con el primer y último día del año que corresponda, de forma automática y sin necesidad de acuerdo expreso.

La presidenta o presidente de la Fundación lo será también del Patronato y ostentará la máxima representación de dicho órgano de gobierno, correspondiéndole, además de las facultades inherentes a su condición de patrona o patrono, la de representar a la Fundación en todos sus actos y contratos que deriven de los acuerdos del Patronato y otros órganos de la Fundación, así como en cuantos litigios, expedientes, cuestiones administrativas, gubernativas, judiciales y extrajudiciales se presenten, pudiendo otorgar a tal fin poderes generales para pleitos a favor de procuradores y procuradoras, así como abogados y abogadas.

Corresponderá igualmente al presidente o presidenta convocar y presidir las reuniones del Patronato, de acuerdo con lo establecido en estos estatutos y en las Leyes, dirigir las deliberaciones y ejecutar sus acuerdos, siendo la misma sustituida en los casos de vacante, ausencia o enfermedad, por el vicepresidente o vicepresidenta o, en su defecto, por la persona miembro del órgano de gobierno de mayor edad.

2. Igualmente, el cargo de vicepresidente o vicepresidenta será rotatorio entre las personas representantes de las instituciones fundadoras recayendo el cargo en aquel o aquella que en el ejercicio siguiente vaya a ostentar la condición de presidente o presidenta del Patronato.

## **12. artikulua.- Idazkaritza**

1. Patronatuak idazkari bat izendatuko du, bere kideen artekoa edo kanpoko. Patronatuko idazkaria Batzorde Betearazlearen idazkari ere izango da. Idazkariaren kargua hutsik badago, Presidenteak ez badago edo gaixo badago, dagokion organoko adin txikieneko kideak jardungo du haren ordezkari.
2. Idazkariaren egitekoak dira, estatutu hauek esleitzen dizkieten funtzioez gainera, Akta Liburuak betetzea eta zaintzea eta Patronatuak nahiz Batzorde Betearazleak hartutako erabakien egiaztagirak egitea, Presidentearen oniritzia jasota.

## **13. artikulua.- Bilerak eta deialdia**

1. Presidenteak egoki irizten dion adina aldiz elkartuko du Patronatua, bere ekimenez nahiz patronatukideen heren batek hala eskatuta. Edonola ere, Patronatuak gutxienez bilerak egin behar du urteko lehen seihilekoaren barruan, azken ekitaldiko urteko kontuak onartzeko, eta gutxienez beste bilerak bat urteko bigarren seihilekoan, hurrengo ekitaldiko jarduerak onartzeko.
2. Bilera egiteko deialdia idazkariak igorriko die patronatukideei, presidentearen ordezkari gisa. Banan-banan eta idatziz egingo du jakinarazpena, horretarako edozein bide erabilita, baina betiere bermatuz bilerak baino gutxienez bost egun lehenago jasotzen dutela deialdiaren berri, presazko deialdia denean izan ezik; presazko deialdiaren berri hiru eguneko aurrerapenaz jaso behar dute patronatukideek. Bilera zer egunetan, zer ordutan eta non egingo den adierazi behar da deialdian, baita bileraren Gai Zerrenda ere.
3. Patronatuaren bileretan Fundazioaren Batzorde Betearazleko kideak eta zuzendariak parte hartu ahal izango dute, horretarako deia egiten dieten; hain zuzen ere, bileretako deliberazioetan parte hartu ahal izango dute, baina ez dute izango erabakiei buruzko botoa emateko eskubiderik.

## **14. artikulua.- Eratzeta**

1. Patronatua lehen deialdian balio osoz eratuta geldituko da, haren kideen bi heren elkartzen direnean, bertaratuta nahiz ordezkaturik, honako baldintza hau betetzen bada, betiere: fundatzaileen hiru patronatukide ordezkariak bileran izatea.
2. Aurreko atalean adierazitako quoruma bete ezean, hurrengo ordu erdiko epearen barruan elkartuko da Patronatua, bigarren deialdian; kasu horretan, Patronatua balio osoz eratzeko aski izango da patronatukideen erdia elkartzea, bertaratuta nahiz ordezkaturik, baldin eta bileran badira presidentziaren edo presidenteordetzaren

## **Artículo 12.- Secretaría**

1. El Patronato designará un secretario o secretaria, ya sea entre sus miembros o ajeno al mismo, que actuará asimismo como secretario o secretaria del Comité Ejecutivo, siendo la misma sustituida en los casos de vacante, ausencia o enfermedad, por la persona miembro del órgano correspondiente de menor edad.
2. Corresponderá a la secretaria o secretario, además de las funciones que le encomienden los presentes estatutos, llevar y custodiar los respectivos Libros de Actas y expedir certificaciones de los acuerdos adoptados, tanto por el Patronato como por el Comité Ejecutivo, con el visto bueno de la presidenta o presidente.

## **Artículo 13.- Reuniones y Convocatoria**

1. El presidente o presidenta convocará al Patronato cuantas veces lo estime oportuno, por propia iniciativa o a petición de una tercera parte de sus miembros. En todo caso, el Patronato se reunirá al menos, una vez dentro del primer semestre de cada año, con el fin de aprobar las cuentas anuales del último ejercicio, y otra vez dentro del segundo semestre, para aprobar el plan de actuación del ejercicio siguiente.
2. Las convocatorias de las reuniones serán enviadas por la secretaria o secretario en representación del presidente o presidenta, a través de comunicación escrita dirigida a cada uno de los patronos o patronas por cualquier medio que garantice su constancia con una antelación mínima de al menos cinco días, salvo en los plazos de urgencia, en los que el plazo podrá reducirse a tres días. La convocatoria deberá indicar el día, la hora y el lugar de celebración de la reunión, especificando el Orden del Día de la misma.
3. Podrán asistir a las reuniones del Patronato, cuando sean requeridos para ello, los miembros del Comité Ejecutivo y el director o directora de la Fundación, quienes podrán participar en las deliberaciones que tengan lugar en dichas reuniones, si bien no tendrá derecho de voto en la adopción de acuerdos.

## **Artículo 14.- Constitución**

1. El Patronato quedará válidamente constituido en primera convocatoria cuando concurran a la reunión, presentes o representados, las dos terceras partes de sus miembros, siendo en todo caso necesaria la asistencia de los tres patronos o patronas representantes de las instituciones fundadoras.
2. Si no se alcanzara el quórum señalado en el apartado anterior, el Patronato se reunirá dentro de la media hora siguiente, siendo suficiente para su válida constitución la asistencia de la mitad de sus miembros, presentes o representados, siempre que estén presentes las personas que ostenten la titularidad de la presidencia o de la



titulartasuna duten kideak.

3. Aurreko ataletan adierazitakoaren kalterik gabe, Patronatua eratzeko deia egin dela eta balio osoz eratu dela joko da haren kide guztiak elkartu eta bilera egitea aho batez onartzen duten aldi oro.

#### **15. artikulua.- Erabakiak hartzea**

1. Erabakiak botoen gehiengo sinplez hartuko dira; horretan salbuespena izango dira hurrengo 2. eta 3. ataletan aurreikusitakoa eta legeek ezarritako gainerako salbuespenak.
2. Honako erabaki hauek hartzeko, parte-hartzaileen bi herenen aldeko botoa beharko da, horien artean direla, nahitaez, fundatzaileen ordezkari diren patronatukideen aldeko botoak:
  - a. Estatutuak aldatzea.
  - b. Fundazioaren bat-egitea, bereiztea, eraldatzea eta azkentzea.
  - c. Patronatukide berriak izendatzea eta horiek kargutik kentzea, estatutu hauetako 10. artikuluan araututako moduan.
  - d. Patronatukideek Fundazioaren Batzorde Betearazlean dituzten ordezkariak izendatzea eta horiek kargutik kentzea, estatutu hauetako 17.1 artikuluan araututako moduan.
  - e. Zuzendaria izendatzea eta kargutik kentzea.
3. Urteko jarduera plana botoen gehiengo sinplez erabakiko da, horien artean direla, nahitaez, Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bilboko Udalaren ordezkari diren patronatukideen aldeko botoa.
4. Patronatuko presidenteak ez du izango edo erabiliko boto ebazlerik edo kalitateko botorik.
5. Patronatuaren erabakiak Akta Liburu batean idatziko dira. Bilera bakoitzaren aktan adieraziko da nork parte hartu duen, zer gairi buruzko erabakiak hartu diren, zer erabaki den eta bozketek zer emaitza izan duten, boto partikularrak ere aipatuta. Akta presidenteak eta idazkariak sinatu behar dute.
6. Patronatuak bideokonferentzia edo komunikaziorako beste bide batzuk erabiliz egin ahal izango ditu bilerak, baldin eta bide horiek bermea ematen badute parte-hartzaileen nortasuna identifikatzeko, komunikazioan etenik ez izateko, deliberazioetan parte hartzeko eta botoa emateko. Hala egiten denean, bileraren buru den pertsona non dagoen, bilera toki horretan egin dela ulertuko da.
7. Ezohiko izaeraz, bilerarik egin gabe ere hartu ahal izango ditu erabakiak Patronatuak, baldin eta bermatuta badaude

vicepresidencia.

3. Con independencia de lo señalado en los dos apartados anteriores, el Patronato se entenderá convocado y válidamente constituido cuando estén presentes todos sus miembros y acepten unánimemente la celebración de la reunión.

#### **Artículo 15.- Adopción de Acuerdos**

1. Los acuerdos, se adoptarán por mayoría simple de votos, con las excepciones previstas en los apartados 2 y 3 siguientes, y las demás que las Leyes establezcan.
2. Se requerirá el voto a favor de las dos terceras partes de los asistentes, incluyendo necesariamente el voto favorable de los patronos o patronas representantes de las instituciones fundadoras, para la adopción de los siguientes acuerdos:
  - a. La modificación de los estatutos.
  - b. La fusión, escisión, transformación y extinción de la Fundación.
  - c. La designación de nuevos patronos o patronas y su cese, tal y como se regula en el artículo 10 de estos estatutos.
  - d. La designación y cese de las personas representantes de los anteriores en el Comité Ejecutivo de la Fundación, según se establece en el artículo 17.1 de los presentes estatutos.
  - e. El nombramiento y cese del director o directora.
3. Para aprobar anualmente el plan de actuación se requerirá el acuerdo adoptado por mayoría simple de votos, incluyendo necesariamente el voto favorable de los patronos o patronas representantes del Gobierno Vasco, de la Diputación Foral de Bizkaia y del Ayuntamiento de Bilbao.
4. El presidente o presidenta del Patronato no tendrá ni ejercerá voto dirimente o de calidad.
5. Los acuerdos del Patronato se transcribirán en un Libro de Actas. El Acta de cada reunión, firmada por la presidenta o presidente y la secretaria o secretario, recogerá las personas asistentes, los temas objeto de deliberación, el contenido de los acuerdos adoptados, así como el resultado de las votaciones, incluidos los votos particulares.
6. El Patronato podrá reunirse por medio de videoconferencia o de otros medios de comunicación, siempre que quede garantizada la identificación de quienes asistan, la continuidad de la comunicación, la posibilidad de intervenir en las deliberaciones y la emisión del voto. En este caso, se entiende que la reunión se celebra en el lugar donde está la persona que la preside.
7. Con carácter excepcional, el Patronato podrá adoptar acuerdos sin la celebración de reunión, siempre que

informazio eta boto eskubidea, egiaztatuta gelditzen bada botoa jaso dela eta bermatuta badago hura benetakoa dela. Halakoetan, erabakia pertsona juridikoaren helbidean eta balio osoz emandako botoetan azkena jaso den egunean hartu dela joko da.

## 2. ATALA

### 16. artikulua.- *Batzorde Betearazlea*

1. Batzorde Betearazleak beteko ditu Fundazioaren kudeaketa, gobernu, administrazio, xedapen eta ordezkaritza eginkizunak, Patronatuak berariaz bere gain hartzen ez baditu, legez eta modu ordezkazinean Patronatuari ez badagozkio edo estatutu hauek zuzendariari berariaz esleitzen badizkiote.
2. Batzorde Betearazleari dagokio, bereziki:
  - a. Jarduera planaren proiektua, aurrekontu proiektua barne, onartzea, zuzendariaren proposamenari jarraituz.
  - b. Zuzendariak proposatutako programazio artistikoa onartzea.
  - c. Artelanak eskuratzeko proposamenak onartzea, baita artelanak gordailutzea onartzea ere.
  - d. Fundazioaren funtzionamendu arauak onartzea.
  - e. Fundazioaren eta beste zentro eta museo batzuen arteko lankidetzak proposamenak onartzea, honako funtzio hauei buruz: kontserbazioa, ikerketa, hezkuntza, erregistroa, diseinua, informazio zerbitzuak, funtsak eskuratzeko, administrazioa eta Fundazioaren kudeaketatik erator litezkeenak.
  - f. Fundazioaren funts artistikoen aldi baterako mailegua onartzea.
  - g. Erakunde fundatzaileek sinatutako akordioetatik Fundazioaren alde erator litekeen beste edozein eskumen.
  - h. Aholkularitza Batzorde Artistikoa izendatzea eta desgitea.
  - i. Beste edozein eskumen, estatutu hauen arabera Fundazioaren beste organo bati ez badagokio.

### 17. artikulua.- *Osaera*

1. Batzorde Betearazleko kideak dira estatutu hauetako 10.1 artikuluan aipatzen diren patronatukideak eta, hala badagokio, Fundazioaren patronatukide diren pertsona edo entitateen ordezkari izendatutakoak —hiru, gehienez ere—, 15.2 artikulua eskatzen duen aldeko botoen babesaz.

queden garantizados los derechos de información y de voto, que quede constancia de la recepción del voto y que se garantice su autenticidad. Se entiende que el acuerdo se adopta en el lugar del domicilio de la persona jurídica y en la fecha de recepción del último de los votos válidamente emitidos.

## SECCIÓN 2ª

### Artículo 16.- *El Comité Ejecutivo*

1. El Comité Ejecutivo, salvo avocación expresa por parte del Patronato, ejercerá las funciones de gestión, gobierno, administración, disposición y representación de la Fundación, siempre que legalmente no correspondan al Patronato de manera indelegable o se hayan atribuido al director o directora de manera expresa en estos estatutos.
2. En particular, corresponde al Comité Ejecutivo:
  - a. Aprobar a propuesta del director o directora, el proyecto de plan de actuación incluyendo el proyecto de presupuestos.
  - b. Aprobar la programación artística propuesta por el director o la directora.
  - c. Aprobar las propuestas de adquisiciones de obras de arte, así como la aceptación de depósitos de obras de arte.
  - d. Aprobar las normas de funcionamiento de la Fundación.
  - e. Aprobar las propuestas de colaboración entre la Fundación y otros centros y museos, en el desarrollo de funciones de conservación, investigación, educación, de registro, de diseño, de servicios de información, de captación de fondos, administrativas y otras que pudieran derivarse de la gestión de la Fundación.
  - f. Aprobar el préstamo temporal de los fondos artísticos a disposición de la Fundación.
  - g. Cualquier otra facultad que a favor de la Fundación se derive de los acuerdos suscritos entre las instituciones fundadoras.
  - h. Nombrar y cesar al Comité Asesor Artístico.
  - i. Cualquier otra facultad que, de acuerdo con los presentes estatutos, no esté atribuida a otro órgano de la Fundación.

### Artículo 17.- *Composición*

1. El Comité Ejecutivo estará integrado por los patronos o patronas a los que se refiere el artículo 10.1 de los presentes estatutos y por aquellos miembros que en su caso y con un máximo de tres, puedan ser designados por el Patronato mediante acuerdo adoptado con el voto favorable que exige el artículo 15.2, en representación de las personas o entidades que ostenten la condición de patrono o patrona de la Fundación.

2. Batzorde Betearazleko kideek beste edozein kide izendatu ahal izango dute bileretan beren ordezkari modura parte har dezan; bilera bakoitzerako ordezkatzearen berri idatziz eman beharko zaio presidenteari.
3. Batzorde Betearazleko kideek doan jardungo dute beren karguan.

#### **18. artikulua.- Batzorde Betearazleko presidentetza**

Batzorde Betearazleko presidente kargua Patronatuko presidentek beteko du; haren ardura izango da bileretarako deialdia egitea eta bileren buru jardutea, deliberazioak zuzentzea eta hartutako erabakiak betetzea; haren kargua hutsik badago, hura ez badago edo gaixorik badago, Patronatuko presidenteordeak ordezkaturiko du, edo, bestela, Batzordeko adin handieneko kideak.

#### **19. artikulua.- Bilerak eta deialdia**

1. Presidenteak egoki irizten dion adina aldiz elkartuko du Batzordea, bere ekimenez nahiz batzordekideen heren batek hala eskatuta, eta, betiere, seihileko bakoitzean behin, Patronatuak bere bilera egin aurretik.
2. Bilera egiteko deialdia idazkariak igorriko die Batzorde Betearazleko kideei, presidentearen ordezkari gisa. Banan-banan eta idatziz egingo du jakinarazpena, horretarako edozein bide erabilita, baina betiere bermatuz bilera baino gutxienez bost egun lehenago jasotzen dutela, presazko deialdia denean izan ezik; presazko deialdien berri hiru eguneko aurrerapenaz jaso behar dute Batzordeko kideek. Bilera zer egunetan, zer ordutan eta non egingo den adierazi behar da deialdian, baita bileraren Gai Zerrenda ere.
3. Batzorde Betearazlearen bileretan Bilboko Arte Ederren Museoren zuzendariak parte hartu ahal izango du; hain zuzen ere, bileretako deliberazioetan parte hartu ahal izango du, baina ez du izango erabakiei buruzko botoa emateko eskubiderik.

#### **20. artikulua.- Eratzea**

1. Batzorde Betearazlea lehen deialdian balio osoz eratuta geldituko da, haren kideen erdia gehi bat elkartzen direnean.
2. Aurreko atalean adierazitako quoruma bete ezean, handik ordu erdira elkartuko da Batzordea, bigarren deialdian; kasu horretan, Batzordea balio osoz eratzeke aski izango da bi batzordekide elkartzea.
3. Estatutu hauetako 16.2. a) eta b) artikuluetan aipatutako erabakiak hartzeko, ezinbestekoa izango da erakunde fundatzaileen hiru ordezkariak bileran izatea.

2. Los miembros del Comité Ejecutivo podrán conferir su representación para actuar en las reuniones del mismo a cualquier otro de sus miembros, mediante comunicación escrita dirigida a su presidente o presidenta y con carácter específico para cada reunión.
3. Los miembros del Comité Ejecutivo ejercerán su cargo gratuitamente.

#### **Artículo 18.- Presidencia del Comité Ejecutivo**


La presidenta o presidente del Comité Ejecutivo lo será quién en cada momento ostente la presidencia del Patronato, a quien corresponderá convocar y presidir las reuniones, dirigir las deliberaciones y ejecutar los acuerdos que se adopten, siendo la misma sustituida en los casos de vacante, ausencia o enfermedad, por quien ostente la vicepresidencia del Patronato y, en su defecto, por la persona miembro del Comité de mayor edad.

#### **Artículo 19.- Reuniones y convocatoria**

